

## ZENTZUMENEN MEMORIA

Oihane Retegi

*Errenteria*

Gaur ere amonari bisita egitera joan naiz. Haren etxeko atea ireki dut eta amona betiko lekuan dago, leiho aurrean, itsaso zabal eta amaiezinari begira. Esperantza betez eta arretaz begiratzen du bere begiek ikusten duten paisaia, norbait laster etortzekoa balitz... Eguzki-izpiek aurpegia argitzen diote, eta malko bat masailetik behera irristatzen ikusi diot. Ondoan duen egurrezko mahai txikitik zapia hartu eta malkoa lehortu du, eta ezer pasatu ez balitz bezala, itsasoari begira jarraitu du, isilik. Ni neure lekuan geratu naiz. Amona ez da jabetu sarreran nagoela, ez baitiot ezer esan une hunkigarri hori ez hondatzeko.

Handik gutxira isiltasuna hautsi egin da. «Nor zara?», galdetu dit, eta «zure biloba Ane naiz», erantzun diot. Egunero bezala susmo aurpegiarekin begiratu didan arren, nik aulkia hartu eta bere ondoan eseri naiz. Ez du ezer ere esan, ez eta kei-nurik egin ere, eta itsasoari begira jarraitu du, isil-isilik. Amonaren begiek tristura azaltzen dute. Ez dakit zerk eragiten duen bere bihotzean mina, baina ez dut gustuko bera horrela ikustea.

—Zeri begira zaude? —galdetu diot.

—Ezeri ere ez —erantzun dit. Hiruzpalau aste hauetan amonak oso gutxi hitz egiten du, eta ni kezkatzen hasia naiz.

Dena den, berriz galdetu diot, «zeri begira zaude?», eta oraingoan ere ez dut erantzunik jaso, horregatik, berarekin batera itsasoari begira jar-tea erabaki dut. Eguzkia sartzan hasi da Getariako portuan, negua da eta herria bustita dago. Itsasoan arrantzaleak ikusten dira, euren itsasontzietan. «Aitona noiz etorriko da? Non dago? Itsasoan jarraitzen al du? Afaria mahai gainean du eta hoztu egingo zaio», esan dit amonak bat-batean. Aitona duela 6 urte hil zen, baina amonak ez du hori gogoratzen.

—Laster, amona, laster etorriko da. Arrantzatzen jarraitzen du, itsaso biziaren aurka borrokan, eta ziur egon bihar hementxe bertan egongo dela afaltzen.

Amonak erantzuna onartu eta aurrera begiraten jarraitu du, triste. Gorroto dut amonari gezurra esatea, esperantza faltsuak sortzen dizkiodalako.

—Baina ziur zaude bihar etorriko dela? Urtea beteko da laster joan zenetik, eta nik uste dut maite ez nauelako joan zela.

—Bai, amona, ziur nago etorriko dela, eta bada-  
kit aitonak izugarri maite zaituela zu. Ikusiko duzu, bihar etxean egongo da zure ondoan afal-  
tzen. Oraintxe nator. Afaria berotzera noa.

Eserlekutik altxatu eta komunera joan naiz. Ezin diot amonari ni negarrez ikusten utzi, ezin dut. Nola esan diezaioket aitona ez dela sekula itzuliko?

Gaur egun eguzkitsua atera du Getariako portuan. Amonari loreak erosi dizkiot herriko loradendan eta harenera joan naiz. Lili zuriak eta gorriak erosi dizkiot; badakit oroitzapen goxoak etortzen zaizkiola burura, horiek usaintzean. Atea ireki dut eta «nor zara?», galdetu dit; «zure biloba Ane naiz», erantzun diot. Itsasoari begira jarraitu du, baina loreak ikusi orduko neuri begiratu eta zera galdetu dit:

—Usaintzen utziko? —loreak gerturatu eta sakon usaindu ditu liliak.

—Zein usain goxoa duten! Aitonak ekarri al dizkit? —buruaz baietz erantzun diot.

—Ederki aski daki nire gustukoenak direla, ba al dakizu zergatik?

Nik banekien zergatik; izan ere, aitonak amona ezagutu zuen egunean, lurreko belarditik lili gorrixka bat eta zuri bat hartu eta amonari eman zizkion. Hala ere, nik buruaz ezetz esan dut.

—Ba, honela izan zen: 1962ko udaberria zen, gaizki gogoratzen ez badut, zuhaitzetan hostoak hazten hasiak ziren eta giroan alaitasuna usaindu ere egiten zen. Hogeitabat urte nituen eta portura joan nintzen aita arrantzara joango zelako eguerdi hartan, eta ogitartekoa ematera joan behar nuen. Ondoren, etxerako bide luzea hartu nuen; izan ere, udaberrian Getariako belardiak ikustea gustuko nuen. Ba, bertan zegoen zure aitona meta egiten. Niregana hurbildu zen eta ezer esan gabe liliak eman zizkidan. «Zuretzat» esan eta joan egin zen. Berezia gizona, ezta? Ba, holaxe ezagutu nuen bera.

—Ene, amona! Zein istorio polita! Seguru asko horrexegatik bidaliko zizkizun loreak, berarekin oroitzeko eta oraindik ere maite zaituela gogorazteko.

Amonaren aurpegian irri bat ikusi dut, loreak usaintzen jarraitu du, eta nik agur esan diot.

Euskal Herrian eguraldia egun batetik bestera aldatzen dela egia da. Gaur itsasotik haize bortitz eta hotza dator. Igandea da, eta, igandero bezala, amonari intxaur-saltsa eraman diot.

—Kaixo, amona. Zer moduz? —galdetu diot.

—Nor zara?

—Zure biloba Ane —erantzun diot.

—Zer duzu hor? —intxaur-saltsa dagoen potoa seinالاتu du.

—Intxaur-saltsa, amona. Zure gustukoena.

—Ene! Hori ere aitonak ekarri dit, ezta?

—Bai, amona, aitonak prestatu du.

—Intxaur-saltsa gure gustukoena da, igandero jaten genuen edo zerbait ospatzen genuen aldiro, nahiz eta hasieran gabonetan bakarrik jan —amonari irribarrea ateratzen zaio aitonaz oroitzen den guztietan—. Zein goxoa dagoen! Aitonari amak erakutsi zion, eta ondoren aitonak niri. —Eta amonak neuri erakutsi zidan, horregatik du zapore bera—. Gogoan dut errezeta, bai: intxaur zatituak eta azukrea esne berotan nahastu ordubetez gutxi gorabehera berotu eta listo; hozten utzi eta ez du misteriorik. Gezurra dirudi gozo honek hain zapore ona edukitzeak eta hain oroitzapen politik burura ekartzeak! Gogoratzen naiz, lehen aldiz

etxe hartako intxaur-saltsa dastatu nuenean... Ez nuen sekula hain saltsa goxorik jan! Horregatik, ba, bihurtu zen nire postre gogokoena.

—Ba, dasta ezazu, amona. Nik joan beharra daukat, bihar egongo gara!

Eta hurrengo egunean:

—Kaixo, amona! Zer moduz zaude?

—Nor zara?

—Zure biloba Ane naiz —isilik geratu da erantzuna jasotzean eta itsasoari begira jarraitu du bere betiko lekutik.

Gaur espero zen bezala euria barra-barra ari du, negua baita. Motxila lurrean utzi dut aulkia hartzeko asmoan, baina amonak aurpegia berehala mugitu du nire aldera panderoak soinua atera duenean.

—Panderoa jotzen duzu? — baietz erantzun diot nik, betidanik jo dut eta.

—Ene, aitonak bezala! Joko al duzu orain?

—Bai, amona, bai.

Eta jotzen hasi naiz.

—Aski dut, utz iezadazu panderoa ukitzen —amonak panderoa esku artean hartu du—. Aitonak, bere esku handi eta zakarrekin panderoa goxogoxo jotzen zuen. Haren hatzek panderoaren larrua ukitzen zutenean ez zuten soinua edo zarata ateratzen, baizik eta bere hatzek panderoa bera ukitzean musika egiten zuen. Nahikoa zen ukipen txiki bat bere sentimenduak sentitzeko. Gure alabek oso gustuko zuten aita instrumentu hori jotzen ikustea, izan ere, panderoa edonork jo lezake, baina aitak jotzeko zuen modua desberdina zen, ez

soinuagatik baizik eta moduagatik. Haren eskuak diferenteak ziren, benetan diotsut.

Nik ere ondo aski oroitzen dut aitonaren hatzek panderoa ukitzean sortzen zen giroa, eta badakit nik sekula ez dudala sentsazio hura eragitea lortuko, nahiz eta saiatu, oso berezia baitzen.

Egun goibela atera du gaur Getarian. Dena ilun dago eta itsasoak indartsu jotzen du portuan. Amonarenera joan naiz gaur ere. Atea ireki orduko betiko galdera bera egin dit, «nor zara?», eta segituan, «zure biloba Ane naiz», erantzun diot. Amona itsasoari begiratzen ari da oraingoan ere, aitona noiz etorriko zain. Haren ondoan eseri naiz, eta, berarekin bat, itsaso amaiezinari begira jarri naiz.

Halako batean, amonak behera begiratu du. Badakit zer begiratzen ari den: herriko taberna. Bertatik *Behin batian Loiolan* kantua entzuten da eta amona kantatzen hasi da: *Behin batian Loiolan erromeria zan; hantxen ikusi nuen neskatxa bat plazan...* Amona gehiago hitz egiten ikustea seinale ona da, eta are gehiago kantatzen ikustea; horrek asko poztu nau. Kantatzeari utzi dio. «Gogorutzen naiz, aitona eta biok herriko erromerian dantzatzen ibiltzen ginela; biok musika sentituz, batak besteaz gozatuz eta gorputza lasai mugituz, Txomin Artolaren kanta atzean entzuten zelarik. Ene, bai! Zein dantzari ona eta trebea nintzen!», esan dit. Eta berriro ere kantatzen jarraitu du: *Esan nion desio senti nuen gisan; harekin hizketa bat nahi nuela izan...*

Dirudienez, euria pixkanaka-pixkanaka gelditzen hasi da. Asteazkena da, eta gaur amonarenera bestetan baino beranduago joan naiz. Iritsi orduko betiko *erretorika* bera: galdera egin dit, nik erantzun eta ondoren bere ondoan eseri naiz. Gaur amona ez da itsasoari begiratzen ari. «Gaur ez diozu itsasoari begiratu behar, amona?», galdetu diot, baina ez dut erantzunik jaso, eta une luzez isilik egon da. Malkoa erori zaio eta ezer esan gabe azkar lehortu du. Gero, begiak itxi eta eskuak indarrez estutu ditu, amorru eta tristura ikaragarriaz. Amona besarkatu dut, gaur ohartu baita aitona ez dela inoiz ere etorriko.